



Korrika Munduan: euskararen aldeko lasterketa, mugarik gabe

Euskarak ez du mugarik, eta horren adibiderik ederrenetakoa da Korrika Munduan ekimena

Euskal Herritik harago, munduko txoko askotan antolatzen diren Korrikek helburu bera dute: euskara ikusaraztea, euskal komunitatea aktibatzea eta hizkuntzaren aldeko aldarria plazara ateratzea, kilometroz kilometro. Era berean, munduan barrena, **KORRIKAK Ahizpa** Txikiak ditu, eta aurten hiru hitzordu izango ditugu: bretoieraren, okzitanieraren eta katalanaren alde.

Etxapare Institutuarekin elkarlanean, bideo-lehiaketa antolatu da eta munduko Euskal Etxeek eta nazioarteko unibertsitateetako irakurletzek hartuko dute parte. Bestalde, AEK-KORRIKAK **mezu bat** zabaldu nahi du munduko bazter guztietan, eta, horri begira, ahalik eta **hizkuntza gutxiagotu** gehienetara itzuli nahi du.

Zer da Korrika Munduan?

Korrika Munduan Euskal Herritik kanpo antolatzen diren Korrika herrikoiak dira, bertako euskal etxeek, euskara ikasleek, irakasleek eta laguntzaileek sustatuak. Formatu txikiagoan izan arren, esanahi handiko ekimenak dira: euskararen aldeko mezua mundura zabaltzen dute, eta diasporako euskaldunak saretu.

[Ikusi hemen munduan zehar antolatutako Korriken informazioa.](#)

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus



Herrialde bakoitzean bere modura antolatzen da: ibilbide sinbolikoak, lekukoa eskuz esku eramatea, ekitaldi kulturalak, musika, mintzaldiak eta topaketak... Baina guztiek partekatzen dute oinarri bera: euskara erdigunean jartzea.

Diasporatik euskarari bultzada

Munduan zehar milaka pertsona ari dira euskara ikasten eta erabiltzen. Korrika Munduan ekimenek indartu egiten dute komunitate hori, ikusgarritasuna emanez eta elkartzeko aitzakia paregabea eskainiz. Askotan, Korrika Munduan urteko hitzordu garrantzitsuena bihurtzen da bertako euskaltzaleentzat.

Gainera, ekimen hauek zubi lana egiten dute: Euskal Herria eta munduko euskal komunitateak lotzen dituzte, sentimendu partekatua elikatuz. Lekukoa eramateak sinbolikoki adierazten du hori: hizkuntza bat herriz herri ez ezik, herrialdez herrialde ere pasatzen dela.

Herrialde askotan, mezu bakarra

Azken urteotan Korrika Munduan ekimenak hainbat herrialdetan egin dira. Hiri handietan zein herri txikiagoetan, euskararen aldeko lasterketak bertako kaleak hartu ditu, askotan bertako jendearen jakin-mina piztuz.

Horrek guztiak euskararen nazioarteko irudia indartzen du, hizkuntza bizia, komunitate aktiboa eta etorkizunera begirakoa dela erakutsiz.

AEKrentzat eta Korrikarentzat, Korrika Munduan funtsezko zutabea da: euskararen aldeko mugimendua globala dela erakusten du, eta hizkuntza komunitatearen indarra azaleratzen du.

Bat egin Korrika Munduan-ekin

Euskal Herritik kanpo bizi bazara, edo diasporako komunitate baten parte bazara, **Korrika Munduan antolatzeko edo parte hartzeko aukera badago**. Jarri Korrikarekin harremanetan: korrika-munduan@korrika.eus

Kilometro bakoitzak balio du, urrats bakoitzak mezua zabaltzen duelako: euskara bizirik dago, eta munduan barrena dabil.

Korrika Munduan: euskarak korrika egiten du, mugarik gabe.

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus



Ezagutu Korrikaren Ahizpak!

KORRIKAn inspiratuta, hainbat hizkuntza gutxituk antzeko egitasmoak sortu dituzte, Korrikaren Ahizpak, alegia.

2026an hiru hitzordu egongo dira:

- Katalanaren aldeko Correllenguarekin, apirilaren 19tik maiatzaren 5era.
- Okzitanieraren aldeko La Passemekin apirilaren 30etik maiatzaren 9ra.
- Bretoieraren aldeko Ar Redadegekin, maiatzaren 8tik 16ra.

[Hemen informazioa.](#)

Hiru Ahizpa hauek 24.KORRIKAn parte hartzea aurreikusita dago eta lekukoa eramango dute Bilbon. Era berean, Korrikak azken jaian -martxoak 29- izango dituen guneetako bat eskainiko die Munduko lagunei: *Etxepare gunea*, alegia. Plaza Berrian kokatuta egongo da.

Erronka: AEK-KORRIKAREN mezua mundu osoko KORRIKAREN lagunei

24. KORRIKAK hizkuntza-komunitatea ekarri nahi du lehen lerrora. Hizkuntza gutxituek gero eta erronka handiagoa dute hiztunak zein hitz egiteko espazioak eskuratzeko edo orain artekoei eusteko; horregatik, ezinbestekoa da komunitatearen pertenezia —identitatea— hizkuntzarekin izaniko gozamenezko bizi-esperientziei lotzea.

Hauxe da, hain zuzen ere, AEKren xedea: Euskal Herriko biztanle guztiak euskaraz eroso bizitzea, eta egoera berbera nahi luke munduko hizkuntza gutxiagotu guztientzat. Hori dela eta, mezu bat zabaldu nahi du munduko bazter guztietan, eta, horri begira, ahalik eta lengoia gutxiagotu gehienetara itzuli nahi du. Beraz, horra hor erronka mundu osoko Korrika lagunontzat!

[HEMEN](#) itzuli beharreko testua eta informazioa.

Aurkezpen-bideoa [HEMEN](#).

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus



Bideo-lehiaketa, Etxepare Institutuarekin elkarlanean

Mundu osoko ikasleek euskararen aldeko aldarriak bidaliko dituzte bideo formatuan. AEKren YouTubeko kanalean jarri ditugu ikusgai; eta ikusleek gustukoenen alde bozkatzeko aukera dute.

5. aldiz antolatu da bideo-lehiaketa, Etxepare Institutuaren eskutik. Bi kategoria izango ditu: batetik, munduko Euskal Etxeetatik bidalitako bideoak, eta bestetik, nazioarteko unibertsitateetako irakurletzetatik jasotakoak.

[HEMEN](#) sariak, oinarriak, eta lehiaketaren inguruko informazio guztia.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus